

Euskaraz bagara

*Euskaraz ari garen bakoitzean
gure herria egin eta bizi arazten dugu;
euskaraz mintzo garen guzietan
asimilazioari erresistentzia menderakaitza altxatzen diogu;
euskaraz gure hitzak, eleak eta berbak, esaldi eta gogoetak moldatzen ditugun ber
euskaldun garela ozen bezain alai berresten dugu;
euskaraz ari garen orotan
globalizazioari ezetz, logika kontsumitzaile indibidualistari uko eta
elkartasun eta auzo lanak lehenesten ditugu.
euskaraz ari garenean
erdaren uhin, tirain eta tiraniari oldartzen garen harkaitz suntsiezinak gara.*

Euskaraz bagara.

*Euskarazko hitzak askatzen,
esaldietan dantza arazten,
olerki eta bertsoan loratzen,
film eta antzerkietan irudiztatzen,
ipuin, nobela eta gogoetetan besarkatzen,
edota kantuetan xaramelatzen
ditugunean;
euskaraz
hitz egin eta sortzen,
irakurtzen eta entzuten,
zabaltzen eta berri emaiten dugularik,
gure territorio libre bakarra libreago egiten dugu,
eta gure herria biziago,
zerbait eta norbait bagara.
Euskarak egiten gaitu herri,
euskaraz bagara.*

Euskara hutsez bete ditzagun Ziburuko plaza ekainaren 7an,
eta gure solas eta biziak urte osoan.



**ZIBURUKO EUSKAL
LIBURU ETA DISKO AZOKA**

Ekainaren 7an, larunbatarekin,
Ziburuko 6. Euskal Liburu eta Disko Azoka


BALTSAN
EL KARTEA

8, G. Delaunay hiribidea
64500 Ziburu

 **ARGIA**

Zirkuito ibilbidea 2. Industrialdea 15,
20160 Lasarte-Oria